



Araban sortzen hasi- tako alderdi berria- rekin ados dirudite Iruñean. Gipuzkoa- rrei astiroago joka- tzea egokitu zaie.

Oraindik bide luzea egin behar du krisiak, ikusten denez. Alderdi berria nola mamituko den ikusteko dagoen bezala, Garaikoetxeak alderditik irte-ko bidea nola egingen duen ere inkogni-ta bat da. Bere telefonoaren «pintxa-
zoa» dela eta iniziatiba hartzen asmatu du, eta hori zela medio euskaldun asko ohartu da PNVko krisiaren beste maila batez ere: ondoren etorri den deklarazio sailean bazirudien burukideek de-
mostratu nahi zutela (ikus Makuaren sa-
laketaren ondorenak, Bizkaiko Diputa-
zioko «pintxazo» famatuarekin) holako manejuetara ohituak daudela. Zerbitzu sekretuak, alegia.

Dena dela, beste alderdi politiko be-
rri baten sorrera mundu guztiak eraba-
kitzat jotzen du. Eta horrek Euskal He-
rrirako egoera politikoaren aldaketa
handia dakar. Hasteko, azararorako
iragartzan dira Komunitate Autonomo-
ko hauteskundeak. Lakuako Jaurleri-
tzan lehendakari sozialista baten arris-
kua ikusten dute askok; honek joera as-
ko aldatu dezake hauteskundeetan, bai-

na baita EAJ-PNVk askorentzako go-
bernatzen azken urteotan erakutsi
duen pulamentu eskasak ere.

Mapa politikoaren aldaketa edo kojuntura berria

Komunitate Autonomoaren ingober-
nabilitatea ere hor gelditzen da hipotesi
gisa, esan nahi duen guztiarekin. ETA-
ren ekintzak tartean izango dira, eta
orain artean PNVk Madrilgo agintarien
aurrean gobernabilitatea eta euskaldu-
nen autogobernu nahiaren irtenbide
arrazoizkoa eskaintzen bazituen, orain
askoz ahulduagoa agertuko da bide ho-
ri.

Sozialisten agintaritzarekin berriz in-
gobernabilitate arriskua dago lotua. Zer
egingo du PSOEk horren aurrean? Plan-
gintza antiterrorista guztia gidatzen du-
tenek ere aldaketak sartu beharko di-
tuzte beren eskemetan. Nondik joko du
ondoko hilabeteetan ZEN planak bide-
ratutako kontraintsurgentziak?

Herri Batasunean guzti honek izango
duen eragina dago, era berean, ikuste-
ke. Askorentzako, PNVren hausketa
mesede besterik ez da Ezker Abertza-
learentzako. HBko zenbait buruk, aldiz,
behin eta berriro aldarrikatu du berek
ikusten duten askapen prozesuarentza-
ko kalte handia dela PNVren hausketa.

Beste interpretazio bat ere bada, due-
la gutxi HBko militante kualifikatu ba-
tek duela gutxi luzatzen ziguna: «HBren
huts bat ere ikusten da guzti honetan.
HBk bere lana ongi bete balu, Arzallu-
zen eta gure arteko hirugarren talde
hori ez zen posible izanen. Iruditzen
zait sekula baino gehiago orain nabari
dela Telesforo Monzonen falta».

Iñaki ZUBIONDO

Negoziaketa, uda honetako seriala

Egunkaria egunero erostera behartu
gaitu negoziaketaren gorabeherak
opor hauetan. Negoziaketak ala kon-
taktoak? ETAr ezer eskaini al dakioko
armak-uztearen trukean? Eta utzi ga-
be isiltze hutsaren trukean? Eta beste
hainbat gai.

Egunak pasa dira eta urrunagotik
bareago juzgatu daitezke gauzak. Eus-
kaldunoi dagokigunez, pozgarria da
negoziaketaren posibilitatea azkenean
aipatzen dela ikustea. Beste konstata-
zio bat: Madrilgo azken bonbaren on-
doren haizatu dela gai guztia; pentsa
zitekeen une logikoagoa izango zela
HB botoz igo eta PNV jaitsi zela ikus-
tearen biharamonean gertatzea, baina
hola gertatu da.

Arma politiko bezala ere ongi balio
du negoziaketaren inguruko protago-
nismoak; PNV barruan bi sektoreek
erabili dute teknika bera: bi buruek
hartu dute parte kontaktoetan, eta
sektore bakoitzarentzat bestearen bu-
ruzagiak gaizki egin du, beste buruei
ezer esan gabe aritzean.

Euskadiko Ezkerrari dagokionez,
beste urrats bat eman du negoziaketa
politikoaren posibilitateak baztertze
aldera. «El País» egunkariak, berriz,
Konstituzio barruan negoziatu daite-
keenaren pistak luzatzen zituen,
77koa gogoratzen zuen amnistia an-
tzeiko bat ere aipatuz. Txomin Iturbek
istilu guzti horietan hartzen zuen iru-
dia ere (negoziatzeko prest dagoen
historikoa) azken kapituluan era sines-
garriago batean argitzen zuen: KAS
alternatibaren gainean negoziatu be-
harra aipatu omen zuela eta negocia-
tzeotan Antxon Etxebeste zela solas-
kide.

Zer geratu da azkenean? Kontak-
toak izan direla, baina hori lehendik
ere suposatzen genuen guztiok. Hortik
aurrera gutxi aurreratu da, ez bada
negoziaketaren posibilitateaz mintza-
tzea bera. Zerbait bada, baina udaz-
ken honetan ikusiko da ZEN planak
zenbat karta dituen oraindik erakutsi
gabe, eta negoziaketa gauza horiek ez
dira bihar goizeko zazpiretarako.

I.Z.